


Noaia !!



Bus geltoki berria
Zumaiarako norabidean



Usurbilgo Antzerki Tailerra

Estreinaldirako gogobiziz

PAGOA Zunbeltz

1,80 €



Euskal garagando jatorria

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASEERRIA HERRIA
BIZIRIK

Elkartasuna
Baserriak eta Garagando
Euskal Herriko Erakundeak
www.pagunea.org/irakurri
945 371 200 • 610 413 131

I. URRUZOLA ARROZTEGIA

Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Dria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan) LASARTE
Tel.: 945 371 200 • 610 413 131

Udal liburategian
100 liburu
dilinguzain

**ERAKURRI,
GOZATU
ETA
OPAITTU**

Informazio gehiago:
www.topagunea.org/irakurri

Albisteak iruditan !!

Andatza Eguna, aldarrikapen eguna

Maiatzaren lehen igandeko ohi-tura berri zuten mendizale askok. Andatzara igo zirenek, ohi bezala, hamaiketako eder batekin berri zutuzten indarrak. Aurten, aldarrikapenak izan dira nagusi Andatza Egunean. Errauste-plantaren aurkako taldeek mendi martxa antolatu zuten eta, horretaz aparte, informazio-panelak ipini zituzten. Irudian, mendizale bat ageri da errauste-plantaren balizko kokaguneari begira.



Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

EAE-ANVREN AURKEZPENA	5. OR.
KRONISTAK KALEJIRAN	6. OR.
ANTZERKI TAILERRAREN EMANALDIA	8. OR.
SAN IXIDRO EGUNA, BEGIBISTAN	10. OR.
JENDE UGARI PANTXOA TA PEIOREKIN	11. OR.
DENBORAPASAK	14. OR.
AMADOR GRANADO, ONENEN ARTEAN	15. OR.




Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

1876ko urtarrilak 29

Gaupasa luze batek Aritzetako restopera eraman nau, odole-tako alkohola jaitsi nahian kafea eskatu dut eta gau luzeko gertaera nahasiak antolatzen saiatzen ari nintzelarik "Bentazikineko" nagusia, Joxemari ondoan eseri zait honako istorio arraroa kontatzera.

Mamuengan ez omen duela sinisten, nire egoera kontuan izanik ondo hasi da, baina lehengoan bitxikeria galanta gertatu zitzaiola eta noski kontatu behar dit.

Bentazikin irekitzen ari zela gizon bat hurbildu zitzaion, ingele-sa, baina euskaraz ondo zekiena, "Morning Post"eko gerra korres-pontsala zela eta urtarrilaren 29an izandako gudaldiaz galdezka ari zen.

Joxemarik nire mozkor estrabismoa, bere istorioarekiko interesa-rekin nahastu omen du eta hitzek elkarriz zapaltzen diotela honela-xe jarraitu du:

-Korrespontsalak hildakoen kopurua jakin nahi zuen eta ea Bentazikinen zenbat hildako zenbatu ote genituen galdezka nuen. Nik ideiarik ez nuela erantzun nion; are gehiago, zertaz ari zitzai-dan ere ez nekiela. Orduan ingelesa galdeketeri baino esatari lane-an hasi zitzaidan. Nonbaiten hementxe bertan gudaldi bat izan dela, Mendizorrotz Bordatxo Arzubieta Bentazikin Aritzeta Zelaiaundi eta Teresategik, frontea osatzen dutela eta baserriak eta tontorrak, kuartel eta kañoi bateri bihurtu direla. Bertatik, lau hila-bete eskasetan, bi mila obusetik gora jaurti ditugula Donostiara,

poeta ospetsu bat ere nonbaiten larriki zauritu omen dugula. Ni harriritu, ez nekien ingelesa ostikoka bentatik atera edota Sanestebango sendategiko larrialdietara deitu.

Nire mozkorrak behera edo gora ote dijoan ez dakit eta beste kafe bat eskatu dut Joxemariaren istorioa bitxia jarraitu ahal izateko, argi daukat bukaeran iritzia eskatuko didala eta noski edozein erantzunak ez duela asetuko. Josemarik etenik gabe kontaktetarekin segitu du:

- Ingelesak bere *speech*-arekin jarraitzen zuen, Donostiako kaze-tari batek, Serafin delako batek, 700 "baja" inguru izan direla omen dio baina ez omen dituela zehazten hildakoak zenbat diren eta berak datu horiek jakin nahi dituela Ingalaterrako bere egunka-rira bidaltzeko. Usurbilen eta Lasarten ehun pasiak zenbatu ditue-la, Mendizorrotzen beste hainbeste baina borroka bortitzenak Barkaiztegi, Zelaiaundi eta Bidarte baserri ingurutan izan direla. Orduantxe segapotoa eskutan nuen sendategira deitzeko prest -jarraitu du Josemarik- eta okurritu zitzaidan ba galdetzea ze guda demonioz ari ote zen, ta berak holaxe erantzun, "the second karlis-tada war!!". Kostata baina ulertu nion eta, motel 130 urte beran-du hatorela!! esan nionean nire begien aurrean pluff eginez kea bezala desagertu zen. Ze, zer iruditzen....??

-Ba, hobe duzula mamuengan sinisten hastea.

Ekarri duen harridura aurpegi berdinarekin joan da, argi dago nire aje erantzunak ez duela bat ere asetu.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Ai ene!

O rain dela bi aste gure herri maite-an gauza bitxia gertatu da. Baserritar batek zortzi zaldi askatu zituen Gernika Ibilbideko belardian, lur jabeen baimenarekin. Denak beltzak, ile luzedunak, helduak eta koskorak, polit-politik, eta ikastolako umetxoak poz-pezik zeuden animalia eder hauek begi-bistan zituztela.

Ba ipuin hau gaizki bukatu zen, zenbait herritarrek udalean kexua sartu zutelako eta seguraski alkateak aginduta ahoz

udaltzain buruak baserritarrari zaldiak kentzea agindu egin zion, esanez burrun-ba eta ezkila soinuak ez ziotela lo egiten uzten eta zenbait auzotarrek kexua zabal-du zutela.

Ai ene! Noraino ailegatu gara, martxa honetan ere kaxkoko zuhaitza guztiak (udaletxe ondoan, futbol zelaian, Bizkarreko pinuak) bota egin beharko dira, itzala, ostoak, haizearekin soinu handia...

Zaldiak gure gizadiarekin 15 mila urte

daramate, halaxe azaltzen dira margotuen Ekain eta Santimamiñeko leitzetan, beti guri lanean laguntzen eta elikadura ematen.

Hurrengo herriko festetan Baztango ttunturroak etortzen badira ziur egon ezkila maitagarriak entzuteko auzotarren sastraka oroitzuz ondolik pasako direla; ni neu arduratuko naiz.

Osasuna eta Ekologia!

Manu Aranburu

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TAÑPOGRAFIA
Kamiseten inprimaketak
943 371 954

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Usurbilgo EAE-ANVk larunbatean aurkeztuko ditu hautagaiak eta herri-programa

Usurbilgo Ezker Abertzalea aspaldi hasi zen udal hauteskundeei begira lanean. Herri diagnostikoa egin eta gero, herri-programa osatu zuten. Hautagaien zerrenda ere prest dute. Horren guztiaren berri emateko, aurkezpen-ekitaldia antolatu dute. Larunbat honetan izango da, herriko frontoian.

Ezker Abertzaleak udal hauteskundetan partehartzeko asmoari heldu dio eta horren harira dator larunbat honetan gaueko 21:00etarako iragarri duten ekitaldia. Bertan, herri programaren berri emango da eta, bide batez, EAE-ANVren zerrenda aurkeztuko dute. Segidan, herri-afaria egingo dute. Dena toki berean, frontoian. Menua hau izango da: langostinoak, urdaiazpikoa eta pateak; sahieskia entsaladarekin eta postrea, kafea eta kopa. Dena, 15 eurotan.

Afarirako txartelak salgai

Afarian partehartzeko txartelak Bentan, Txiribogan eta Zendoian jarri dira salgai.



Larunbatean, manifestazioa Bilbon

EAE-ANV alderdiaren 133 zerrenda baliogabetu dituzte eta egoera salatu aldera, manifestazioa antolatu da larunbat honetarako Bilbon. Deitzaileek, EAE-ANVko kideek, "bakea, demokrazia, eta eskubide zibil eta politikoak" aldarrikatu nahi dituzte Euskal Herrirako. Usurbildik 15:30ean abiatuko da autobusa Bilbora. Baina 21:00etan Usurbilgo frontoian hasiko den ekitaldirako bueltan izango da autobusa.

Auzoz auzoko aurkezpenak egingo dituzte

Larunbat honetan gaueko 21:00etan, Usurbilgo EAE-ANVko agerraldia egingo du herriko frontoian. Baina datorren astean, auzoz auzo ibiliko dira EAE-ANVkoak herri programa aurkezten. Saio horietan ere, Usurbilgo zerrendako hautagaiak ere hartuko dute parte. Hona hemen egitaraua:

- Maiatzaren 16an asteazkena, Kalezarren, arratsaldeko 19:30ean.
- Maiatzaren 16an asteazkena, Aginagan arratsaldeko 19:30ean.
- Maiatzaren 16an asteazkena, Santuenean, arratsaldeko 19:30ean.
- Maiatzaren 17an osteguna, Txokoalden, arratsaldeko 19:30ean.
- Maiatzaren 17an, osteguna, Kaxkoan, Sutegin, 19:30ean.

Astelehenetik aurrera, Zumaiarako autobusa Kale Nagusian geratuko da

Orain arte, San Inazioko errotondan geratu izan da Donostiatik Zumaiara doan autobusa. Baina astelehenetik aurrera, Kale Nagusiko geltokian geratuko da autobusa. Bertan egin duten geltoki berriari jaisi beharko dute usurbildar bidaiariak.

Kale Nagusia kale estua den aldetik, funtsezkoa da autoak espaloi gainean ez aparkatzea. Bestela, oztopatu egin-

go litzateke autobusaren ibilbidea eta honek trafiko arazoak eragingo lituzke. Hala balitz, Foru Aldundiak neurriak hartuko lituzke eta bus geltokia berriro San Inazioko errotondara eramango luke. Hori da behintzat udaltzaingoak duen susmoa. Beraz, autobusaren garraioan arazorik ez bada, behin betiko finkatuko litzateke irudian duzen geltokia, Donostia-Zumaia norabidea egiten duten autobusentzat.



TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Promesen garaia



Korrika eta presaka, azken unerarte klozorroan egotearen erruz, hemen natorkizue auzotarrok.

Elikadurari buruzko kanpaina batek zioen bezala “garain, garaikoa” eta gaur, denon ahotan dabilen kontua eta tokatzen den afera, hauteskundeak direla uste dut.

Aurten orain lau urte ez bezala, oraingo aukera guztiak, Usurbilen bederen, parte hartu ahal izango dute, edo ez... Usurbilen zerrenda guztiak ez baztertzeak hauteskunde trukatuak direla aldarrikatzeari ez diogu utzi behar eta Euskal Herri osoan aukera guztiak eta euskal herritar guztiak ordezkatuak egon daitezzen ere.

Hauteskundeak direla eta orain arte, azken lau urtetan agintean egon direnen adiskide batek hala esan zidan: “etzekit hok ze inbiauen, dana inda utziko zaiek eta...” halajaina! Txokoaldeko trenbide pasoa konponduta, erriberetako lur sailtako sarrerak konponduta, soziedade edo auzoko kultur bilgune bat eraikita, auzoko gazteentzat etxebizitzak, babes ofizialekoak gainera, Galardiko sarrera ere konpontuta, ... Udara baino lehen aipatutako guztiak bukatuta. Ijuuu!!

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Maiatzeko agenda



Emanaldi ugari antolatu du Jexux Artze Kultur Taldeak. Txalaparta aitzakia hartuta, “Nomada TX” dokumentalak, hainbat kontinenteetan zehar egindako bidaia bat erakusten digu. Bidaia hau Indiako herri zaharretako batetik pasatzen da edo Mongoliatik, non abeslari baten ahots sakonak zirrara sortarazten duen gure barruan. Laponia aldera ere eramaten gaitu. Bertan txalapartak egiteko trebezia azaltzen da, izan ere izotzezko txalaparta bat nola egiten den ikus genezake eta zein soinu berezi lortzen den. Afrikara ere iristen dira eta hemen, basamortu inguruan, harrizko txalaparta bat osatzen dute. Dokumentalak hasi eta bukatu arte paisaje eta doinu zoragarriaz gozatzeko aukera ematen du eta musika hizkuntz unibertuala dela oso ondo erakusten du.

Bestalde “Pantxoa eta Peio”ren saioan jende ugari bildu zen aspaldiko kantak entzutea. Azken diskoko kantak abestu bazituzten ere, garai bateko abestiek jaso zituzten txalo gehienak.

Agenda politikoa berriz bete bete dago udal hauteskundeak direla eta. Giroa nahasia badago ere, alderdi politiko bakoitza murgilduta dabil kanpaina honen betebeharreran.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Uholdeak

Pasa den egunetan irrati eta telebistan gai izan dira uholdeak. Gertaera hauek gogorra ekarri didate duela hamar urte ekainaren batean izan genituen uholdeak.

Maiatzaren azkenean pozik joan nintzen ohera, hurrengo egunean Ikastolaren Eguna baitzen. Goizeko 8:00etan ate soinu urduriak esnarazi gintuenean ordea, amets guztiak zapuztu zitzaizkidan. Lehiotik begira jarri eta kotxeak ur gainean buelta emanda ikusi nituen, etxeari dantabatekoka. Zitzu bizian atera ginen etxetik, ur zorrumbilo horretatik ihes egin nahian eta kostata lortu genuen bertatik irtetzea. Troia auzoa, beste auzo eta herri bezala, suntsitua geratu zen eta denbora behar izan zen sortutako kalte guztiak konpondu ahal izateko. Gaur, argazkiak isladatzen dutena baino ez zaigu gertatzen, baina nire buruan, eta zuetako askorenean ziurrenik, tinko dirau egun hartako oroitzapena.



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Adi... badatorrelaaaa!

Maiatza. Hilabete benetan ederra. Astebururako plana prestatzeko aitzakiarekin sukaldara jo dut NOAUako egutegi eder hori miatzera. Lan bikaina benetan, je... Lehen begiradan ez dirudi gauza gehiegi dagoenik, hilabete luzea eta oporrik gabekoa, ai ama!... Baina bat-batean, Usurbilgua, Usurbildarra eo Usurbilkua (berdin dio nola esan) izateak barnean daramagun festa eta parrandarako sena piztu dit eta oiherun bat entzutea iruditu zait, nire begirada egun batean geratzearekin batera. Eta hortxe dago, gure Sagardo Egun maitea, Usurbil munduan famatu egin duen festa, noiz iritsiko zain! Urte osoan errepikatuko ez den festa baita hau. Herrikoak ez besteak dira herriaren jabe diruditenak, festarako gogo amaitezin batekin sagardoaren usaian tropelean etortzen direnak. Baina inoiz ez dute gu kikiltzea lortzen eta sagardo trago artean lurralde ezberdinetako jendea gure xarmarekin txunditurik gertatzen da, barreak botaz eta errepikatze gogoarekin. Orain egunak aurrera doazen neurrian oihua gero eta ozenago entzuten dut, gero eta gertuago. Badatorrelaaaa!!! Bitartean ondo pasa eta adi belarriak...



SANTUENA

ALEX TELLO

Errepidea eta arriskua bat



Bertan bizitzeak merezi du. Inoiz kanpora joaten ez banaiz, urte askoan hemen biziko naizela aurreikusten dut. Bai. Datozen urteotan hemen izango naiz, urte askoan eta hil artean bizitzen... Bizitzen... Nola, baina? Pozik? Zoriontsu?

Ez dakit ba... Bakean bizitzearekin konformatzen naiz, baina... Errepidera irteterakoan bizi esperantza hondoa jotzen ikusten badut...

Aurrekoan, Txikiertitik nentorrela, gero Usurbilen sartu zen furgoneta zuri berri batek (gidaria Usurbilgo 'bizi-laguna' ote?) nire bizitza arriskuan jarri zuen. Hark gidatzeko zuen abilezia ikusita, hauetako egunen batetan ezbeharrak eragingo duela pentsatzen dut. Gero, bihar, etzi... gurutzatze batek ustekabekoan izorratu gaitzake. Arriskua posiblea da. Arriskuaren probabilitatea bada. Eta, arriskuan (eta piperturik) ez dago inolaz ere, inon bizitzerik. Ostia!

Errepidean, zorigaitzaren giltza nornahik eragin dezakeela, zuhurtasunaz ekiten duenak hutsegiterako probabilitatea murriztagoa du. Nolanahi ere, auskalo.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Andatza Eguna



Maiatzan bete betean sartuak gaude dagoeneko, eta hilabete handia da nolanahi ere. Urteroko legez, igaro den igandean, Andatza eguna izan genuen eta Usurbilgoez gain, inguruko herrietatik ere bertaratu zen jendea. Eguraldia lagun, jende dexente abiatu zen bidean barrena Andatza

gaina zapaltzeko asmoz. Andatzara hurbildu zirenek, hamaiketako ederraz gozatzeko aukera izan zuten eta hamaiketakoaren ostean herri kirolak izan ziren. Bertsolari eta trikitilaririk ez zen falta izan eta giro ederra eta doinu ederrak zabaldu zituzten.

Itxura leuneko mendia da Andatza, nonahitik begiratuta ere. Basogintzaren ondorioz eratutako konifera baso zabalak estaltzen dute gain aldea eta pista ugari gurutzatzen dira baso horietan barrena. Gustu guztietarako aukerak eskaintzen ditu gure mendiak; oinezkoek gain, egokia da mendi bizikletaz ibiltzeko, pistak baitaude bazter guztietan (noski bizikletaz gain, bi eta lau gurpilezko motordunak ugari ibiltzen dira tamalez). Pista hauei jarraituz Aia, Zizurkil, Andoain, Lasarte, Aduna... iristeko aukera dago ibili nahi duenarentzat.

Behin Andatza eguna iraganda...S agardo egunaren zain geratzea besterik ez zaigu geratzen. Egun handia konturazterako gainean izango dugu... Bitartean ondo izan eta hurrengora arte.

AGINAGA

M^ANGELES ARRUTI

Autopistako obrak

Orain dela aste bete bat bueltatxo bat egin nuen Telleindegi eta Gorosti aldera eta aukera izan nuen autopistaren hirugarren karrila egiteko obrak martxan daudela ikusteko. Bertakoek esan zidaten hiru bat hilabetetan ez dutela orain daukaten bidetik ibiltzerik izango, moztuta geldituko baizaie kotxez eta oinez ibiltzeko.

Inguruan bota dituzte dauden zuhaitz eta larrak. Orain bertara joateko Arrate baserriaren ondotik joan behar da. Aipatutako lanekin, lehengo bide zaharra berreskuratuko dute eta akaso, obra hauen ondorioz gauza on bat ikustekotan hau izango da. Bide honek bailara honetako baserrien hurbiltasuna lortzen du. Batzuk ezaguna izango duzue honen arrazoiak, Telleindegi eta Gorosti baserrietik, Urdaira, Arrate Aintzi eta Aintzi-Berri baserrietara joateko presa aldetik, hau da Agiña menditik bakarrik dago bidea eta berreskuratuko den bideak asko moztuko du baserrien arteko ibilbidea.



ZUBIETA

XABIER ARREGI

Hauste-kundeak

Zubietarrok hiru bozka emateko eskubidea omen genuen. Bada ez, gauzak aldatzen ez badira, niri behintzat ukatu egin didate eskubide hori. Bozka bat eman ahal izango dut, akaso. Bozka bakarra, eta hori Herri-Batzarrerako ordezkariak aukeratzeko.

Udaletako jakinarazpenak iritsi zaizkigu egunotan, Herri-Batzarra zer eta zertarako den azaltzeko. Arretaz irakurri ditut Batzarraren eskumenak, lehen ere ezagutzen nituenak. Eta ez da hori gaur egun behar duguna. Nortasun handiagoko Batzarra lortu behar dugu. Batzarraren ahalmena, nonbait egotekotan, ez dago eskumen eskas horietan, baizik eta arautegiko beste puntu batean. Udalek ez dute horren berri eman, baina arautegiaren 11. artikulua dio udalek Batzarra kontsultatu egingo dutela Zubietari dagozkion gaietan. Hor dago koska. Horretan datza Batzarraren indarra: Zubietari dagozkion erabakiak ez daitezela hartu zubietarren parte-hartze zuzenkorrik gabe. Hori da bi udalek inondik inora bete ez dutena eta hori da, hain juxtu, hurrengo legealdian dugun erronketako bat. Eta erronka horri aurre egiteko prest daudenez, animoak eta eskerrak eman nahi dizkiet Herri-Batzarrera aurkeztu diren herritarrei. Izango duzue nire botoa.

Nire boto bakarra. Hortik aparte, ezin baitut aurkeztu, ez botorik eman. Kutsatuta bainago, eta kutsagarria bainaiz. Ideologia onartezina baitarabilt buru-bihotzetan. Hauteskundeak ez, "hauste-kundeak" izango dira datozen hauek.



Maiatzaren 19an saio berezia eskainiko du Usurbilgo Antzerki Tailerrak

Ikastolara goiz eta arratsalde. Handik atera ostean, batzuk gus-tuko kirol entrenamendu saioetara, besteak ingeleseko klaseak jasotzera, asko musika instrumenturen batean trebatzera... Baina badira eskaintza horretatik kanpo geratzen diren aukera gehiago ere. Antzerkigintza alternatibetako bat da; Usurbilgo Antzerki Tailerra.

Pasa den ikasturtetik, 11-14 urte arteko hamar usurbildar Usurbilgo Antzerki Tailerrean partehartzen ari dira. Ekimenak emaitza ezin hobeak izan ditu gazteen artean. Tailer horretan parte hartzen hasiaz geroztik, zaletasun berri bat dute. "Hainbat ekintzetan beren lekua bilatzen ez zutenek, tarte hori antzerkian aurkitu dute", adierazi du Marian Goenagak. Yolanda Arrietarekin batera, abian jarri zuten antzerki tailerra 2005ean, urte hartako Herri Antzerkian haurrek izan zuten esperientzia bikaina bizi ostean. Iraitz Lizarraga aktorearekin harremanetan jarri eta bera ari da irakasle lanetan.

Herriko bizitza dinamizatze bide edo aukera bat ikusten zuten eta dagoneko hasierako planteamendu haiek errealitatean bilakatu dira. Jendaurreko saioak eskaini dituzte. Iaz, ikasturte osoan zehar hainbat obra prestatu eta taula gainean erakutsi zituzten.

Baina ziur aski, horietako batetaz oso modu berezian oroitu dira. Pasa den urteko Santixabeletan, lehen aldiz, maskota igo eta jaistean antzerki emanaldi bana izan zen. Jaien amaiera iragartzen zuen ekitaldiko ikuskizuna ospatzen dela urte batzuk dira. Baina maskota igotzerakoan ez zen inoiz egin. Estreinako aldiz, Antzerki Tailerreko kideak izan ziren emanaldia eskaini zutenak. "Herrian agertzea oso polita izan zen", gogoratzen du Goenagak.

Iraitz Lizarragaren eskutik, antzezlan batek eskatzen dituen prestakuntza lanez gain, heziketarekin lotuagoak dauden ikasgaiak jasotzen dituzte ikasleek. Talde



AZKEN ASTEOTAN, JO ETA SU ARI DIRA SUTEGIN ENTSEATZEN.

kideen arteko harremanak lantzen saiatzen dira. Eta hori baliagarria zaie askori. "Tailerrak ridikuluaren zentzua edota lotsa gainditu edo horretan lagundu die", adierazi du Goenagak. Duten irakaslea izatea zorte handizat jotzen du, ekimena oso ondo bideratzen ari baita.

Ezusteke oso ona

Antzerkia gaztetxoek gozagarri bilakatu da. Irakasle eta gurasoen esanetan, oso talde abegikorra da. Larunbat bateko saioa bukatu orduko, hurrengoa noiz iritsiko zain izaten dira. Eskolaz kanpoko beste hainbat ekintza gisa, antzerkia haien lehentasunetako batean bilakatu da. "Gu ere harrিতa geratu gara, haiengan izan duen arrakastagatik. Oso ezusteke ona izan da", adierazi du ekimenaren bultzatzaileetako batek.

Seme-alabak hain pozik ikusita, gurasoak ere hala daude. "Proba bat izan da", argitu du Goenagak. Esperientzia ondo atera dela ikusi dute. Baina ekainean amaituko dute bigarren ikasturtea eta aurrera begira zer egin erabakitzeke garaia izango da. Deialdia herri mailan

zabaldu nahi lukete. Kasu horretan, taldea handituko litzateke eta horrek laguntza gehiagoren beharra izatea suposatuko luke. Baliabide aldetik, mugatuta daudela jakinik eta hain esperientzia baikorra bertan behera utzi ezin dela jakinda, aurrera egiteko formula bila dabilta. "Pena merezi du. Honetan sinisten dugulako saiatuko gara", adierazi du Goenagak.

ANTZERKI SAIOA

MAIATZAK 19, LARUNBATA

ORDUA: 13:00.

LEKUA: Sutegiko auditorioan.

IRAKASLEA ETA GIDOIA: Iraitz Lizarraga.

AKTOREAK: Miren Alkaide, Ane Bengoetxea, Jon Etxabe, Ander Izeta, Miren Izeta, Nekane Larrañaga, Irati Martikorena, Itsaso Orbegozo, Haira Rivero eta Ane Zinkunegi.

SARRERA: doan.

Iraitz Lizarraga, Antzerki Tailerreko irakaslea

“Talde honek gaitasun izugarria du”

NOAUA! Nolako hasiera izan zuen Usurbilgo Antzerki Tailerrak?

Iraitz Lizarraga. Hasiera batean, antzerkiarekin kontaktua hartzeko ariketa batzuk planteatzen hasi nintzen. Baina gero obrak egiteko kristoren gogo zute-la ikusi nuen. Oso talde dinamiko da eta haien aldetik asko jartzen dute. Obratxo bat egin genuen gabonetarako; baita Aste Santurako eta ikasturte amaierarako ere. Talde honek gaitasun izugarria du.

N. Aurten ere erritmo berean zoazte?

I. L. Aurten lasaiago gabilta. Obrak egitea ondo dago, haiek ere ondo pasatzen dute eta azkenean zerbaiten emaitza ikusten da. Aurten, ordea, gehiago sakondu nahi nuen antzerkian. Hala, maiatzaren 19koa obra landuago bat izatea nahi nuen. Arlo gehiago ukituko dituen eta horrekin batera hainbat ariketa egin, antzerkian gehiago sakontzeko.

IRAITZ LIZARRAGA

“Ikasleen inprobisaziotik abiatuta, nik idatzitako testu batzuk dira maiatzaren 19an eskainiko ditugunak”

N. Maiatzaren 19an aurkeztuko duzue obra Sutegin. Aurrerapen bat?

I. L. Nahiago dut sorpresa izatea, baina gai sozial bati buruzkoa izango da. Haurrek atera zuten gaia eta interesgarria iruditu zitzaidan. Haien inprobisazioeta-

rik abiatuta, nik idatzitako testu batzuk dira. Zerbait polita egingo dugu, nahiko abstraktua eta metaforikoa izan arren, fondo soziala duena. Jendea etor dadila ikustera. Politza izango da.

N. Antzerkian sakontzeko ariketak aipatu dituzu. Zeintzuk?

I. L. Antzerki munduan teknika eta planteamendu ezberdinak daude. Gorputzari eta antzerki fisikoari garrantzi handia ematen diot. Klase hasieran beroketa ariketak egiten ditugu, jolastuz eta ondo pasatuz. Hortik abiatuta, dantzako ariketak planteatzen ditut. Koreografiak haiek sortzen dituzte. Hortik ahotsa gehitzera pasatzen gara eta gero, inprobisazio asko egiten ditugu.

N. Antzerkigintzak zer du beste espresio bide askok ez dutenik?

I. L. Antzerkian, publikoarekin harreman zuzena duzu eta horrek asko ematen du. Hor mugitzen diren energiak, telebistan ez dituzu, ezta zinean ere. Momentuko zerbait da, unean bertan galtzen da. Alde horretatik, aberasgarria dela iruditzen zait.

N. Antzerkigintzak zer hutsune ditu gaur egun?

I. L. Bigarren mailan utzia dago, baina telebista edota zinea daudenetik gertatu den zerbait da. Baina horrek ez du esan nahi, nire ustez, krisialdian dagoenik. Ez du behar beste laguntza jasotzen baina horrek beste bide batzuk bilatzera zaratza eta askotan hori ez dago gaizki. Laguntza ofizialaren zain izaten gara, baina zuk zure kabuz mugitu behar



SUTEGIKO SAIOA OSO POLITA IZANGO DELA DIO IRAITZ LIZARRAGAK.

duzunean gauza politikak ateratzen dira. Hala ere, laguntza gehiago ez zen batera gaizki etorriko.

N. Aktore baten prestakuntzari begira, antzerkiak zer tarte beteko luke?

I. L. Ikasten hasi nintzenean argi nuen antzerkira dedikatu nahi nuela eta gero, bigarren aukera bezala telebista jateko ematen duelako. Bakoitzaren planteamenduaren arabera dago. Baina teknikak oso ezberdinak dira.

N. Leku gehiagotan ere bazabiltza gaztetxoei irakasten?

I. L. Andoainen, Anoetan eta Donostian.

N. Aktoreen harrobi berria dagoela esango zenuke?

I. L. Bai. Gogo handia dago adin horietan. Gero, betikoa gertatzen da, normala den bezala, bakoitzak bere interesak ditu eta adinean aurrera egin ahala batzuk antzerkia utz dezakete.

ARITZ GORRITI

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

San Ixidro eguneko

jai girora hurbiltzera deitu dute antolatzaileek

Asteartea, maiatzak 15, San Ixidro; baserriarren eguna. Egitaraua prest du herritar talde batek. Kalejira, pilota partida, bertsolariak eta bazkaria Saizarren. Eguna merezi bezala ospatzeko.

“Baserriar gutxi dago eta gutxi horiek etortzera animatuko nituzke”, adierazi du Euxebio Txapartegik, antolatzaileetako batek.

Goizpasarako ekitaldi sorta prest dute jada. Tartean, baita otorduak ere. Harakina pozik dago, iaz, lehen ez bezala, asko hamaiketako jatera Andazpera hurbildu zirelako. Jendea erakartzeko bete-betean asmatu zuten zer egin. Aldez aurretik, mezan horren berri ematea. “Iaz, apaizari hamaiketako debalde izango zela esan genion”, zehaztu du Txapartegik.

EUXEBIO TXAPARTEGI

“Gauza oso zaila dago. Gazteak ez du ikusten etorkizunik, gogo gehiegi ere ez”

Horrekin batera, ez du huts egingo bertsolari gazteen emanaldiak, pilota partidak edota trikitilariak.

Ezkor, datorrenari begira

Zer ospatua izango dute San Ixidro egunean. Baina kezkatzeko arrazoirik ere ez dute falta. Baserriak eta baserriko lanetik bizi diren herritarrak ere gutxitzen ari dira.

Etorkizuna beltz, etsipenez ikusten



AURTEN EZ DA AZOKARIK IZANGO SAN IXIDRO EGUNEAN.

dute. Arrazoietako bat, txandakatzeko belaunaldi berri falta da. “Gauza oso zaila dago. Gazteak ez du ikusten etorkizunik, gogo gehiegi ere ez”, adierazi du Txapartegik. Belaunaldi berriak erakartzeko, berriz, egoerak dezente aldatu beharko luke. “Laguntza falta handia dago eta oztopo ugari. 10 pezeta irabazteko 12 pezetaren lana egin behar da. Etsita geratzen zara”, gogoratu du. Alde horretatik, kooperatibak egiten duen lana eskertuta, bertako baserriarrei babes handiagoa eman beharko litzaiekeela uste du Txapartegik. “Kanpokoei garraibidea jartzen, eta bertakoak itota”, zehaztu du.

Lehia handia da eta erakundeen aldetik, ez dute behar beste laguntza jasotzen. Baina momentuz behintzat, berak eguneroko lanarekin jarraitzeko

asmoa du. San Ixidro egunean bilduko diren gainerakoak bezala, “ahal den arte”, aipatu du.

SAN IXIDRO

MAIATZAK 15, ASTEARTEA

10:00 Meza nagusia.

11:00 Hamaiketako Andazpe Elkartean.

Ondoren, pilota partida, Egoitz Zelaia eta Arkaitz Oiarzabal bertsolariak eta trikitilariak frontoian.

14:00 Bazkaria Saizar sagardotegian (prezioa, 27 euro). Ez da izena aldez aurretik eman behar. Egunean bertan sagardotegira azaldu eta kitto.

ARITZ GORRITI

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Jende ugari Pantxoa ta Peioren kantaldian

Erronka ez zen hala moduzkoa. Kiroldegian egiteak, zaildu egiten zituen antolaketa lanak. Baina Jexux Artze kultur elkarteak lan txukuna egin zuten eta Pantxoa ta Peioren jaialdia primerakoa izan zen.

Horrelako kantaldi bat ikusteko aukera gutxitan izan ohi da. Akaso horregatik izango zen; kontua da ia 500 lagun bildu zirela Pantxoa ta Peioren emanaldian.

Emanaldiaren lehen zatian, "Lurra eta maitasuna" azken diskoko kantuak abestu zituzten, tarteka kantu zaharagoren bat eskainiz. Kontzertuaren azken zatian, batez ere kanta "zaharrrak" jo zituzten, betikoak, eta jendea kantaren erritmora txaloka aritu zen eta abestien leloak alai kantatzen.

Sutegin, Oreka Tx

Bezperan, Nömadak Tx filmearen bi proiektzioetan ere lagun asko bildu ziren. Oreka Tx taldeko kideak Sutegin egon ziren, txalaparta eta guzti.



HERRI URRATSEN KAMISETAK SOINEAN IGO ZIREN KIROLDEGIKO OHOLTZA GAINERA PANTXOA TA PEIO.

Euskal jantziei buruz hitzaldi interesgarria

Ane Albisu dantzari eta ikerlari Adonostiarrak ostiral honetan esakiniko duen hitzaldiarekin amaituko da Jexux Artze kultur elkarteak antolatutako duen egitaraua. Euskal jan-

tzi tradizionalen nondik norakoak eta egun duten erabilpena azalduko du. Hala nola, jantziak ere jendaurrean erakutsiko ditu. Ostiral honetan, maiatzak 11, 19:30ean Sutegin.

Nafartarrak taldeak antolatutako zikloa ere, arrakastatsua

Parte hartu dutenak gustura eta baita antolatzailerak ere. Nafartarrak Kultur Taldeko kideak pozik dira apirila amaieran antolatutako kultur zikloak izan duen harrerarekin.

Kopia eske ari zaizkie bat baino gehiago. Kultur zikloaren barne, antolatzailerak Usurbili buruzko DVD emanaldia eskaini zuten Sutegin. Herriaren historiako hainbat pasarte irudi bidez ikusi ahal izan zituzten bertaratu zirenek.

Antolatzailerak esanetan, kuriositatez hurbildu dira asko Sutegin antolatu ziren ekitaldietara. Garrantzitsutzatu josten dute taldetik ezaugarri hori iza-

tea, jakinminak neurtzen baitu askotan ekitaldiekiko dagoen interesa. Hala, bat baino gehiagok ez du hitzaldi batera ere hutsik egin. Hain zuzen, DVD emanaldiaz gain, Euskal Herriaren iragana, orainaldia eta etorkizuna jorratu dira hiru hitzalditan. Alorreko hiru adituren eskutik.

Izan duten harrerarekin gustura daude antolatzailerak. Baita horietan izan den parte hartzearekin ere. Hitzaldietan, ikus-entzuleak izateaz gain, bertaratutakoek galderak edota komentarioak egin baitizkie adituei.

Auza Gaztelura irteera

Zikloa amaituta, dagoeneko hurrengo ekitaldia prestatzen dabilta



IRUDIAN, JEXUX AGIRRESAROBE NAFARTARRAK TALDEKO KIDEA ETA GABRIEL EZKURDIA HIZLARIA.

Nafartarrak taldekoak. Maiatzaren 20an Tolosa-Oria bailarako "nafartar" taldeek Auza Gaztelurako igoera antolatu dute.

“Irakurri eta oparitu” ekimeneko lehen liburuak mailegatu dira

Sutegi udal liburutegiko sarre-rako atea ireki eta eskuin aldeko apaletan daude denetarikoa biltzen dituzten ehun liburuak. Adin tarteka sailkatuta daude eta begiratu bakarrik ez, mailegatzeko moduan dira guztiak. Baina dagoeneko batzuk falta dira. Herritarrak “Irakurri, gozatu eta oparitu” kanpainara hurbiltzen hasi dira.

Dagoeneko etxera eraman dituzte euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen ekimeneko liburu batzuk. Lehen maileguak egin dituzte eta dagoeneko irakurtzen hasiak dira. Baina eskari gehiago egon zitezkeen, eguraldi onak eta duela gutxi izandako jai-zubiak hainbeste eraginik izango ez balute. Bi faktoreek ekimenari ez diote ekarpen handiegirik egin. “Pasa den astean bestetan baino jende gutxiago ibili da, oro har, liburutegian”, adierazi du liburuzain lagun-tzaile Amaia Minerrek.

AMAIA MINER

“DVDekin batera liburu asko mailegatu da Usurbilgo udal liburutegian”

Edozein kasutan, oraindik lehen egunak baino ez dira. Nahi duenak oraindik bi hilabete ditu kanpainan parte hartzeko.



KANPAINAREN JARRAIPENA WEBGUNE HONEN BIDEZ EGIN DAITEKE.

Ehun liburu daude aukeran eta horietatik hamar kanpaina abian dagoen herrietako euskara elkarteek proposatu dituzte. Kanpainarako hautatu diren liburuetakoa bat maileguan hartu eta irakurtzearekin batera, irakurleak beste zeregin bat izango du. Liburuari buruzko fitxa txiki bat bete beharko du; pertsonaiei edota kontatzen diren istorioei buruzko galdera motz eta orokorreari erantzun beharko die. Fitxa ez da bete behar mailegatu-tako liburuak liburutegira itzultzerakoan, “etxean irakurtzen ari direnean baizik, horretarako denbora hartu dezaten”, argitu du Minerrek.

Deskontu txartela eskuratzeko aukera

Ardura hori bere gain hartzen duenak izango du konpentsaziorik.

Irakurritako liburuarekin batera fitxa eskatutako datuekin beteta liburutegira eramaten duenak deskontu txartela jasoko du. Horrekin Lizardi edo Laurok liburu dendarara joan eta irakurritako liburu bera %25 merkeago oparitu ahal izango dio beste pertsona bati. NOAUA!-ko bazkideek %50 merkeago eskuratu ahal izango dute eta oparia jasoko duenaren datuak utzita, kultur elkartea bera liburu pertsona horrengana heltzeaz arduratu-tuko da.

Irakurzaile asko

Usurbilen liburutegira gerturatzeko ohitura errotua dago. “DVD-ekin batera liburu asko mailegatu da”, adierazi du Minerrek.

ARITZ GORRITI

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3-943 361 106

Hemen aurkituko duzu gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

“Perez gure sagutxo hori” filmea botako dute igande honetan Sutegin

Pelikula eder batez gozatzeko aukera izango dugu igande honetan Sutegin. Emanaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta prezioa euro batekoa izango da, baina ez da alde aurretik erosteko aukerarik izango. Beraz, egunean bertan eta Sutegiko takillan salduko dira sarrera denak.

Juan Pablo Buscarinik zuzendu zuen pelikula hau eta 2006an aurkeztua izan zen. 92 minututan, Perez sagutxoaren ibilerak ezagutuko ditugu. Berarekin batera, Lucia, Santiago eta Pilar dira film honetako protagonistak.

Lucia beti abentura bila doan neska urduria da. Lehenengo hortza erortzen zaionean Perez sagutxoak ez dio dirurik uzten eta Lucia arduratu egiten da eta



sagutxoari zerbait gertatu zaiola uste du eta bere bila joatea erabakitzen du...

Santixabeletako diseinu lehiaketan partehartzeko azken eguna, maiatzak 21

Jailetako egitarauak diseinatzailea behar du. Horregatik, udalak lan hori egiteko lehiaketa antolatu du. Partehartu nahi duenak egitarauaren testua jaso behar du udaleko Soziokultura batzordean eta testu horretan oinarritu behar du bere diseinu lana.

Formatu artistiko guztiak onartuko dira: pintura, akuarela, collage-a,

argazkiak, digitala... Egilearen datu pertsonalak, gutunazal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean, aurkeztutako lanaren atzealdean agertuko den izengoiti bat idatzi beharko du egileak.

Aurkezten diren lanen artean, bat aukeratuko da. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Lanak Soziokultura batzordean aurkeztu behar dira. Maiatzaren 21a baino lehen.

Astearte honetan, Udarregiko ikasleen bertso jaialdia

Ikasturte honetan, Udarregi Ikastolako bostgarren eta seigarren mailako ikasleak Bertso gintza eta Ahozkotasuna ikastaroa landu dute Hizkuntzako orduetan. Saio hauek Bertsozale Elkarteke Iñaki Gurrutxagarekin burutu dira. Orain, ikasturte osoan ikasitakoa erakusteko aukera iritsi zaie.

Datorren asteartean, hilak 15, Udarregi ikastolako aretoan bertso jaialdi polita eskainiko dute. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ikasleen saioa.

Aurten, bostgarren mailako 27 ikasle eta seigarren mailako 48 ikasle izan dira ikastolako bertso-talerean partehartu dutenak. Beraz, bertsoak badu etorkizunik.

Danborradako entseguak asteburu honetan hasiko dira

Ohi bezala, Agerialdeko patioan egingo dira Santixabeletako danborradak prestatzeko entseguak. Ostiral honetan, maiatzak 11, arratsaldeko 19:00etan hasiko da haurren entsegua. Iluntzeko 20:30ean, aldiz, helduen entsegua.

Aurten Santixabel bezperan egingo dira danborradak: haurren saioa 12:30ean hasiko da; helduena 19:30-22:30 artean.

Datorren astean hasiko da emakumezkoentzako pala ikastaroa

Azken asteotan iragarri dugun Aoharraren harira, badirudi aurrera egingo duela emakumezkoentzako pala ikastaroak. 16 urtetik gorakoentzat izango da ikastaroa eta palaz eta teniseko pilotarekin egingo da.

Maiatzaren hirugarren astean hasiko da eta ekaina bukaeran amaitu (6 asteko iraupena). Astearen ordu t'erdiko bi saio egingo dira. Partehartzaileen artean lehiaketatxo bat egiteko

aukera ere aurreikusi da.


Ikastaro honen bidez, beroketa, luzaketak, oinarritzko teknika lantzeko ariketak, oinarritzko taktika egiteko ariketak, araudia ezagutzeko ariketak eta oinarritzko gaitasun fisikoak landuko dira.

Ordaindu beharreko kuota 20 eurokoa izango da. Gehieneko kopurua: taldea 10 pilotariz osatua. Herritarrek lehenetsasuna izango dute.

Aginagako Ariztitxo pilotalekuan eskainiko da ikastaroa eta bertako frontoiaren erabilera ikusita, ikastaroa astearte eta ostegunetan egitea izango da helburua.

Izen eman nahi duenak, maiatzaren 16an asteazkena arratsaldeko 20:00etan, Usurbilgo kiroldegian azaldu dadila. Maiatzaren 17an, bilerara bat egingo da arratsaldeko 20:00etan kiroldegian.

Hitz-gegidunak !!

	Ahal balu	▼	Zango-artikulazioak	▼	Musika nota	▼	Gorri bihurtua	▼	Arloak
	Aldeko telefonoa		(Infin.) Kendu		Lotan		Zur estimatua		
	▶		▼		▼		▼		
Errepika	▶					Argi, hitz elkarketan	▶		
Ukimen-duak						Galioa			
Agorrak	▼	Zegoena	▶	▼		Biba!	▶	▼	
Noizbait		* IRUDIAN				Kakoaren forma hartu			
▶		▼			Esku itxi	▶	▼		
					Biloa				
Olatua	▶			▼			Ate, hitz elkarketan	▶	
Argizagi							Uso ar		
▶			Aintzira	▶			▼	United Kingdom	▶
			Errep., Txileko ibaia					Listua	
Gipuzkoako eskualdea	▶		▼				▼		Musika nota
Arabako mendialdea									
▶					... Baskonia	▶			Sufrea
					Kontsonantea				Kontsonantea
Fruitu tropikal	▶				Apeta, irrika	▶	▼		

*Usurbilgo kiroldegiaren izenburua.

Soluzioa, 16. orrialdean.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaua !!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Visa Munduko Kopan da Amador Granada

Ingalaterrako Manchester hirian jokutzen ari den Visa Munduko Kopa Paralinpiarrean da egun hauetan Amador Granada herriko txirrindularia. Iaz pistan, Kilometroko proban lortutako garaipena errepikatzeko helburuarekin abiatu zen asteazkenean eta taldekako olinpiar sprint-ean ere parte hartuko du azken urteetan maila bikaina ematen ari den txirrindulariak.

Paralinpiadak alde batera utzita, ezinduentzat antolatzen den elite mailako kirol-anitzeko proba garrantzitsuena da Visa Munduko Kopa Paralinpiarra. Atletismoa, igeriketa, gurpil-aulkian jokaturiko saskibaloia eta txirrindularitza dira Manchesterren jokutzen den ekitaldi garrantzitsu honetako programa ofizialean sartuta dauden kirolak eta mundu osoko 41 herrialdeko 325 kirolari inguru izango dira bertan.

Kirolari horien artean da Amador Granada herriko txirrindularia. Datorren astean beteko ditu 40 urte, baina pistan oraindik onenen artean ibiltzeko gai dela erakusten ari da ezinduen LC2 mailan aritzen den usurbildarra. Iazko edizioan zapore gazi-gezarekin itzuli zen Manchester aldetik. Bere marka nabarmen hobetu eta Espainiako errekorra jarriaz urrezko domina lortu zuen Kilometroko proban, baina ondoren, scratch modalitateko azken proban erorikoa izan eta eskuin klabikula hautsi zuen.

Aurten ere Manchesterko belodromoan izango da Amador eta iazko lorpena errepikatzeko asmotan da. "Kilometroko proban urrezko domina eskuratzen saiatuko naiz. Hala ere, iaz egin nuen denbora berdintzea edo hobetzea da nire helburua". Horrez gain, taldekako olinpiar sprint modalitatean ere parte hartuko du Espainiako selekzioko beste bi txirrindularirekin batera.

2008an Txinan izango diren Paralinpiadei begira, Plan ADOPeko formaziorako eta teknifikaziorako beketako bat eman diote Amador Granadori azken urteetan lortutako emaitza bikainen ondoren, eta gaur egun, pistan txirrindularitzako Espainiako hautatzaile nagusia den Salvador Cabeza de Vaca entrenatzailearen aginduetara ari da



ERDIAN AMADOR GRANADO, USURBILEN EGINDAKO CRITERIUM BATEAN.

prestaketa lanetan. Manchesterko proba garrantzitsua bada ere, abuztuan Burdeoson jokatu den Munduko txapelketara bideratu dute aurtengo prestaketa. "Maiatzaren 18tik 20ra Sevillan izango den Espainiako txapelketara joango naiz, baina abuztuko Munduko txapelketa da nire eta nire prestatzaileen helburu nagusia. Bertan emaitza onak lortuaz gero 2008ko Joko Paralinpiarretara joateko aukera handiak izango nituzke".

Pistan buru-belarri badabil ere, errepidea ez du alde batera utzi Amadorrek. Pasa den apirilaren 21ean ezinduen Gipuzkoako eta Euskadiko txirrindulari

txapelketak ziren jokoan Andoainean jokaturako errepideko erlojupekoan eta herriko txirrindulariak garaipena lortu zuen LC2 mailan. "Asko sufritu nuen. Pistan entrenatzen ari naiz azken aldi honetan eta errepidea alde batera utzia neukan. Hala ere, garaipena lortzeko beste faktore bat ere eman zen: txirrindulari batzuk ez zuten parte hartu Andoaingo Kriteriumean". Duela bi aste, berriz, 2. postua eskuratu zuen Bizkaiko Bira Paralinpiarreko 2. etapan.

JOSU ARANBERRI

Ataun-Usubil Herri Arteko pilota txapelketan

Usubilek asteburu honetan ekingo dio 40. Gipuzkoako Herri Arteko pilota txapelketari. Lehenengo kanporaketa ekidin ondoren, final zortzirenetako kanporaketa jokatu dute herriko pilotariak eta Ataun izango dute aurrez aurre. **Ostiral honetan, maiatzaren 11n, herriko pilotalekuan jokatu dute joaneko norgehiagoka** arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Hurrengo asteburuan, berriz, Ataunen izango dira itzuliko neurketak. Ataundarrek Eskoriatza 4-2 gaitzitu dute lehenengo kanporaketan.

Herriko pilotariak dagokionez, hutsune nabarmen bat izango dute aurten, azken urteetan afizionatu mailan atzelari

modura aritu den Asier Arruti profesional mailara pasa baita. Kadete mailan Xabier Santxo eta Jokin Irastorzak jokatu dute eta Iban Arruti, Josu Ostolaza eta Haritz Aranburu ere jokatzeko moduan dira. Jubenil mailan Imanol Esnaola, Eñaut Esnaola, Iker Zinkunegi eta Jon Esnal dira herriko ordezkariak. Azkenik, seniorretan aurrelariak dira protagonista nagusi, Jabi Santxo, Enrike Huizi, Xabier Errasti eta Asier Portu baitira maila honetan izena emanda dauden pilotariak. Enrike Huizi herriko pilota elkarteko ordezkariaren esanetan kadete mailako partidetan erabaki daiteke final zortzirenetako kanporaketa hau.

Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 10, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 11, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 12, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Maiatzak 13, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Maiatzak 14, astelehena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 15, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 16, asteazkena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 17, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 18, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 19, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Maiatzak 20, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Lanbide Eskola

Usurbilgo Lanbide Eskolak maiatzaren 12an eta 19an, goizeko 11:00etatik aurrera, ate irekien jardunaldiak egingo ditu. Eskola ezagutu nahi duten guztiei nahi adina argibide eman go zaizkie. Informazio gehiago, 943 364 600 telefono zenbakian.

Soluzioa !!

	⊛	B	⊛	B	⊛	L	⊛	G	⊛		
	S	A	K	E	L	A	K	O	A		
	⊛	L	E	L	O	⊛	A	R	T		
⊛	A	⊛	Z	E	N	A	⊛	G	O	R	A
I	N	O	I	Z	⊛	U	K	A	B	I	L
⊛	T	I	R	A	I	N	A	⊛	A	T	A
I	Z	A	R	⊛	L	A	K	U	⊛	U	K
⊛	U	R	I	B	E	K	O	S	T	A	⊛
B	A	D	A	I	A	⊛	T	A	U	⊛	S
⊛	K	O	K	O	⊛	G	U	R	A	R	I

Soluzioa: Oiaro.

ORDUTEGIA Tren								ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarautz SAN PELAIO	ZARAUTZ	ZARAUTZ	Zarautz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANORGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20	06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50	06.38	06.39	06.45	06.54	07.00	07.03	07.06	07.09
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20	07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50	07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20	08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50	08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20	09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
09.47	09.50	09.52	09.55	10.03	10.14	10.19	10.20	10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.22	11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20	12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50	12.38	12.39	12.45	12.54	13.00	13.03	13.06	13.09
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20	13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50	13.38	13.39	13.45	13.54	14.00	14.03	14.06	14.09
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20	14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50	14.38	14.39	14.45	14.54	15.00	15.03	15.06	15.09
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20	15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50	15.38	15.39	15.45	15.54	16.00	16.03	16.06	16.09
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20	16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50	16.38	16.39	16.45	16.54	17.00	17.03	17.06	17.09
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20	17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50	17.38	17.39	17.45	17.54	18.00	18.03	18.06	18.09
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20	18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50	18.38	18.39	18.45	18.54	19.00	19.03	19.06	19.09
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20	19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50	19.38	19.39	19.45	19.54	20.00	20.03	20.06	20.09
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20	20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20	21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20	22.08	22.09	22.15	22.24	22.30	22.33	22.36	22.39
22.17	22.20	22.22	22.25	22.33	22.44	22.49	22.50	22.40	22.41	22.47	22.56	23.00	23.03	23.06	23.09

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAETAN 00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAETAN

Agenda !

Maiatzak 11, ostirala
 - "Tradiziozko euskal jantzien nondik norakoak eta gaur egungo erabilera" hitzaldia, 19:30ean Sutegin.

Maiatzak 12, larunbata
 - EAE-ANVren hautagaien eta herri programaren aurkezpen-ekitaldia. 21:00etan frontoian, ondoren afaria.

Maiatzak 13, igandea
 - "Perez gure sagutxo hori", igandean Sutegin ikusgai, 18:00etan.

Maiatzak 15, asteartea
 - Ikastolako ikasleen bertso jaialdia. 18:00etan Udarregi ikastolan.

Maiatzak 19, larunbata
 - Usurbilgo Antzerki Tailerraren lanen aurkezpena. 13:00ean Sutegin.
 - Landarbaso abesbatza Salbatore elizan, 18:30ean.
 - Batukada emanaldia 20:00etan kalean.

Haur Eskola Partzuergoan sartzea erabaki zuen udalbatza plenoak

Haur Eskola Partzuergoan sartzea erabaki zuen udalbatza plenoak maiatzaren 2an deitu zuen ezohiko saioan. Udal ordezkari gehienek Partzuergoaren Estatutuak eta lankidetzaz hitzarmena onartu zituzten.



Hartutako erabakiak, batetik, orain arte zerbitzuak kudeatu dituen Ibanher enpresarekin kontratua amaitzea aurreikusten du. Bestalde, Hezkuntza Sailera Haur Eskolaren instalazioen onarpena eskatzeko dokumentazioa bidaliko da.

Aldaketarik ez bada, ikasturte berrian Partzuergoan sartuta egongo litzateke. Baina ez da izango aldatuko den gauza bakarra.

Bertako langileen lan-baldintzak ere, Partzuergoaren araudira egokitu-tuko dira.

Azken batean, Partzuergoaren araudiak zehazten dituen estatu-tuak onartu dira. Horrekin batera, Partzuergoan sartzeko Eusko Jaurlaritzaren eta udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenari ere onepena eman zitzaion azken ezohiko udalbatza saioan.

ORDUTEGIA Autobus Astleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN								
	DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ	ZARAUZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
DONOSTIA - ZARAUZ	07:40	>>	08:05	08:25	06:45	07:05	>>	07:30
	08:10	>>	08:35		07:15	07:35	>>	08:00
	08:40	>>	09:05	09:25	07:45	08:05	>>	08:30
	09:10	09:30	09:35		08:15	08:35	>>	09:00
	09:40	>>	10:05	10:25	08:45	09:05	>>	09:30
	10:10	>>	11:05	11:25	09:10	09:45	>>	10:10
	11:40	>>	12:05	12:25	09:45	10:05	>>	10:30
	12:10	12:30	12:35		10:10	10:45	>>	11:10
	12:40	>>	13:05	13:25	10:45	11:05	>>	11:30
	13:10	13:30	13:35		11:15	12:05	>>	12:30
	13:40	>>	14:05	14:25	12:45	13:05	>>	13:30
	14:10	14:30	14:35		13:10	13:45	>>	14:10
	14:40	>>	15:05	15:25	13:45	14:05	>>	14:30
	15:10	15:30	15:35		14:10	14:45	>>	15:10
	15:40	>>	16:05	16:25	14:45	15:05	>>	15:30
	16:10	>>	17:05	17:25	15:10	15:45	>>	16:10
	17:40	>>	18:05	18:25	15:45	16:05	>>	16:30
	18:10	18:30	18:35		16:10	16:45	>>	17:10
	18:40	>>	19:05	19:25	16:45	17:05	>>	17:30
	19:10	19:30	19:35		17:15	18:05	>>	18:30
	19:40	>>	20:05	20:25	18:45	19:05	>>	19:30
	20:15	20:35	20:40	21:00	19:10	19:45	>>	20:10
	21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	>>	20:30
	22:15	22:35	22:40	23:00	20:15	21:05	>>	21:30
					21:15	21:35	>>	22:00

00.00 Aiaa jarraitzen du. 00.00 Aiafak dator

ORDUTEGIA Autobus Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN								
	DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ	ZARAUZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
DONOSTIA - ZARAUZ	08:00	08:20	08:25	08:45	06:45	07:05	07:10	07:30
	09:00	09:20	09:25	09:45	07:45	08:05	08:15	08:40
	10:00	10:20	10:25	10:45	08:45	09:05	09:15	09:40
	11:00	11:20	11:25	11:45	09:45	10:05	10:15	10:40
	12:00	12:20	12:25	12:45	10:45	11:05	11:10	11:40
	13:00	13:20	13:25	13:45	11:45	12:05	12:15	12:40
	14:00	14:20	14:25	14:45	12:45	13:05	13:15	13:40
	15:00	15:20	15:25	15:45	13:45	14:05	14:15	14:40
	16:00	16:20	16:25	16:45	14:45	15:05	15:15	15:40
	17:00	17:20	17:25	17:45	15:45	16:05	16:15	16:40
	18:00	18:20	18:25	18:40	16:45	17:05	17:15	17:40
	19:00	19:20	19:25	19:45	17:45	18:05	18:15	18:40
	20:00	20:20	20:25	20:45	18:45	19:05	19:15	19:40
	21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	20:15	20:40
	22:00	22:20	22:25	22:45	20:45	21:05	21:15	21:30
	22:30	22:50	22:55	23:15	21:45	21:05	21:15	21:40
HEGUKO LABURRATZ GAURTAN								
	00:00	>>	00:25	00:45	23:15	23:35	>>	00:00
	02:00	>>	02:25	02:45	01:15	01:35	>>	02:00
	04:00	>>	04:25	04:45	03:15	03:35	>>	04:00
	06:00	>>	06:25	06:45	05:15	05:35	>>	06:00

00.00 Larunbat lanegunetan bakarrik.

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta garajea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastearo-arekin. Garajea aukeran. 685731792

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. Zozketa batean tokatua denez, duen prezioa baino 400 euro merkeago salduko nuke (1900 euro). 649 356 081.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Usurbilgo kafetegi batean goizez lana egiteko pertsona euskaldun bat behar dugu. Interesatuak deitu 690106070 telefonora.
- Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 678582665.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645 403 905.

Lan-eskaerak

- 19 urteko neska usurbildar bat naiz, magisteritzako ikaslea, eta udan umeak zaintzen egingo nuke lan. Interesatuak deitu: 610369330 / 943366220 (Ane).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko

- edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disonibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Apirilaren 30ean orban gorritzak dituen Setter Ingeles bat galdu da Andatzen. Ikusi baduzu deitu 679387345 (Ainhoa).
- Inork etxean alfer-alferrik telebista txiki bat edukiko balu, gustora berrerabiliko genuke Udarregi ikastolan. Bide batez, zaharkitutako vhs bideo reproduktorea ere hautsatsak jaten ari badizu, guk etekina aterako genioke ikastolan. Telefono zenbakia: 943 361216.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa

- jasotzen ari dena. Tf: 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Gure lorittoa martxoaren 7an desagertu zen, haize handiarekin beldurtu egin zen. Ikusten baduzu, mesedez, deitu: 656 734 413 (Ainara).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkatz saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Zorionak Iratxe eta Asier!!

Maiatzaren 10ean zenbat urte egingo dituzue? Puf! Asko baietz!!! Ondo pasa eguna eta muxu haundi bat biontzako Josune, Oskar, Patxi, Malen, Olatz, Xabi, Txingu eta Zaloaren partez.



Zorionak Ioritz!

Maiatzaren 15an egingo dituzu 3 urte eta etxeko guztiek zorionak eta muxu handi bat eman nahi dizkizugu. Ondo pasa!



Oharra: Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321. erredakzioa@noaua.com

Zorionak Tirtir! Pasian-pasian honera ere iritsi gaituk. Afaria hire kontu, beno patea.



Zorionak Julen! Maiatzaren 5ean urte bat egingo duzu. Oso ondo pasa familiaren partez. Muxuak!



JAIOTZAK

Haritz Garitaonandia Sagarna Apirilaren 27an jaio zen.

HERIOTZAK

Jose Javier Ezpeleta Zabala, maiatzaren 7an hil zen 64 urte zituela.



JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FORDAK · POSTA
www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Plis, plas, txalo ta jolas,
Kultur ekitaldiak...



Pirritx eta Pirritx
Ekainaren 9an
pilotalekuan!

www.noaua.com
Edizio jarraituan



NOAUA! Astekaria
Astero doan etxean



Egin zaitez bazkide
Zure laguntza ere beharrezkoa da

BAZKIDETZA ESKAERA	
Izen deiturak:	
Jaiotze data:	Sexua:
NAN zenbakia:	
Helbidea:	
Herria:	Posta kodea:
Bizibidea:	
Tel:	e-mail:
Banketxea:	
Kontu korronteko zkia (20 digitosk):	
Bazkide KUOTA: 36 € (Uztallean kobratuko da kontu korrontetik)	

osasun gida

Fisioterapia



Fisioterapia Zentrua
Ibaiondo

Fisioterapia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 14 - behea, etx. LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

Masajista



Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44 - behea • LASARTE-ORIA

masaje zentroa

illarra

Eskuko masaje klasikoa • Masaje Terapeutikoa
Kirol masajea • Elektroestimulazioa • Errehabilitazioa

Hernani bidea, 4 • LASARTE • ☎ 679 488 905

Optika



USURBIL
OPTIKA

Erretzeneko aparatuek • Igenlekuak tapoiak neurtza eginda
BEHERAPENAK egurkitako berruztekin

Zubiaurenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 260

Odontologia



Odontologa
Dra. M^a Jesús Rubio Muñoz

Berhaste kalea, 1 - 1Ez. USURBIL
☎ 943 36 18 59

Gida honetan azaldu nahi baduzu:
☎ 943 360 321 • publizitatea@noaua.com